

Enbarazutik kendu



Mikel Aramendi

Betetzear izango dira hogeit hamar urte, beteta ez badaude, norbaitek esan zuela "ETA soberan dago eta enbarazu egiten du". Ez zen norbanako haren bat-bateko ateraldia, euskal erakunde ahaltsuenetako baten hausnarketa-ren sintesia baino. Eta ez zetorren erakunde armatuaren etsai profesional zein amateur-erengandik, ideologoki abertzaletasunarekin eta langileriarekin harremanik estuene-takoa zuenarengandik baizik. Denboratxoa falta zen Lizarra-Garazirako, eta zer esanik ez Aieterako. Ezin da jakin euskal gizartearen zenbateko zatia zegoen orduan bertan ados esaldiarekin, hitzez hitz eta osoro; asko eta askotarikoak ginela esango nuke, baina iru-dipena baino asko gehiago ez da.

Ia hamabost bat urte geroago, beste norbaitek esaldi bertsua jaulki zuen, subjektua

aldatuz: "Indarkeria soberan dago eta enbarazu egiten du". Ziur nago ez zela bere kasako burutazioa, talde-gogoeta luzearen emaitza baino. Esalea ezker abertzaleko liderra izateak balio erantsia ematen zion esaldiari, eta euskal gizartearen gehiengoak, zabala gainera, bat zetorrela esango nuke. Baina irudipena besterik ez da. Handik hiru hilabetera, Aieteko Konferentziaren ondotik, ETAK bere jarduera armatuaren amaiera iragarri zuen, eta "izateari" utzi gabe "egoteari" utzi zion.

Larunbatean esale biak Baionan ziren, oker ez banago, protagonismo eta ikusgaitasun ezberdinarekin, jakina. Beste asko bezala, baina biziago seguruenik, aldapa goreneko hatsaldian sentitu behar zuten: ETA oraindik bada, baina "erakunde armagabea" izanik ez dago batere argi, niretzat behintzat, zer den, ezer bada. Baina kideek erabaki beharko dute hori. Falangeak eta gainerakoak legezkoak diren lurralde ba-

tean, kanpotik desagertzea eskatzen hasi aurretik, koherentzia erakutsi beharko da, gainerakoan.

Atzera begira ipinita, iraganaren kontakizuna eta *agitpropa* oso gauza ezberdinak direla uste dugunok behintzat, lehena historialarientzat eta bigarrena horretatik bizi (izan) direnentzat utzi ondoren, gogoeta egin genezake, patxadaz eta harrotasunak atarian utzita, zergatik kostatu ote zaigun horrenbeste –denbora, oinaze eta abar– askok, agian gehienek, aspaldi aurreikusitako helmugara iristea. Zergatiak bilatu esaten dut, ez erruak banatu; batzuentzat sinonimoak diren arren, niretzat antonimoak dira eta.

Edonola ere, askoz interesgarriagoa –eta premiazkoagoa– da etorkizunera begira ipintzea. Enbarazuan zegoena, norabaiterako bidean baitzegoen enbarazuan; norako bidea(k) d(ir)en hori(ek) jakiteko ordua iritsi dela esan liteke. Eta bidelagunak zein izan daitezkeen argitzen hasteko. ■

Justizia eta bizikidetzaren berrarmatu



Garbiñe Biurrun Mancisidor

Badirudi gizartearen zati handiak, alderdi politiko gehienek eta talde sozial askok ETAREN desarmatzea positibotzat eta aurrera egiteko aukera ezin hobetzat jo dutela.

Ezinbestekoa zen, horretarako eskubidea genuen eta iritsi da, iristen ari da 2011etik.

Zer aldatzen da ETAREN erabaki honekin? ETAREN barnean, ez dakit ezer berrikerik gertatuko den –muinean, diot-. Azken finean, armagabetzeaz eman duen agirian esaten da Euskal Herriagatik hartu zituztela armak eta Euskal Herriaren eskuetan utzi dituztela. Bada, hasteko, herriaren gehiengoak ez dio inoiz horrelakorik eskatu eta armak, zorionez, ez daude gizarte honen esku, horrelako armarik ez baititugu behar.

Beste arloetan, aldaketak espero bakarrik ez, exijitu behar ditugla esango nuke. ETARI

indarkeriari uko egitea eta gure bizitzatik desagertzea exijitu diogun bezala. Pauso garrantzitsu honek balio behar du justizia eta bizikidetzaren lantzeko eta berrarmatzeko.

Zergatik berrarmatu behar da justizia? ETAREN jarduerak sufrimendu eta oinaze handiak utzi ditu, denak injustuak eta inoiz sendatuko ez direnak. Estatuak ere ETAREN indarkeriari erantzuterakoan sufrimendu injustuak utzi ditu eta oraindik gertatzen ari dira.

Zaila da esaten benetako justizia zer den, baina gizarte honek horretaz zerbait badaki: injustiziak gogoan eduki eta, ahal den neurrian, amaitu eta sufrimenduak arindu. Hauek dira berrarmatze horren oinarriak. Orain arte izan dira ekimenak horren alde: ETAREN biktimek badute jasan duten injustiziaren aitortza politiko eta soziala. Baina dena ez da hor bukatzen: hilketa asko daude oraindik ikertzeko eta argitzeko. Ona izan-goa litzateke horri eustea, nahiz eta justizia

arruntan ezinezkoa izan delituek preskribitu egin dutelako, eta ona litzateke, baita ere, behin eta berriro adieraztea horrelakorik ez zuela inoiz gertatu behar.

Estatuak eragin duen sufrimendu injustuari ere tratamendu bera eman behar zaio. Estatuak terrorismoa erabili du terrorismoaren aurka, legea bihurtu du salbuespeneko neurriak finkatzerakoan, eta ez da bere legedia betetzen ari espetze arloan. Hau ere injustua da eta honi ere lehenbaitlehen amaiera eman behar zaio, eta arindu eta leundu oinaze guztiak. Hemen daude arazo eta oztoporik larrienak. Baina horretan datza justiziaren berrarmatzea.

Gure elkarbizitza ere hautsita egon da denbora luzean. Konfiantza osoa daukat gure gizartearen. Gogoz ari gara lan horretan, herriz herri, ekimen desberdinen bitartez, eta lortzen ari gara.

Justizia eta bizikidetzaren etorkizunaz betetako armak dira. ■